

PRENTSA-OHARRA

Azken urteetan gertatu den moduan, Oñatiko Udal Gobernuak emakume eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzea du helburu, eta horrela bada, Berdintasun Batzordea sortu zen lehenik eta Berdintasun Plana eratu. Lehen urrats hauetatik sortzen da hasi berri dugun prozesu honen beharra: hirigintza eta herria bera emakumeen ikuspuntutik aztertzeko beharra.

Finean, genero-ikuspegia hirigintzan txertatzea zer da: emakumeen ezaugarri, baldintza eta jakinduria ulertzea beharrezkoa dela ikustea; genero estereotipoak ezabatzea eta emakumeek bizitzaren mantentzean egiten duten lanaren kalitatea onartzea; desberdintasunak desberdintasun, pertsona guztiak errespetatu eta guztiei aukera berdinak ematea, bai lanean, baita bizitzan ere. Eredu androzentrikoan oinarritutako hirien plangintza eta diseinutik haratago, haurrei, menpekotasuna duten pertsonei, emakume zein gizonei egokitutako kultura anitzeko espazio irisgarriak izango dituen eredu sostengarrira pasa behar dugu. Denboren banaketa-berdintasuna erraztuko duten espazioak izan behar dira herriak, guztion parte-hartzearekin, berdintasunean oinarritutako mundua lortzeko.

Jadanik, abenduan, Oñatiko emakume ezberdinekin biltzeko aukera izan genuen: gazteak, helduak, nagusiak, kirolariak, atzerritarrak, zaintzaileak, elbarrituak, jubilatutak, ikasleak, langileak... eta gertutik bakoitzaren lehen sentazioak, iritziak eta bizipenak ezagutu genituen. Horrekin guztiarekin, Oñatiko lehen argazkia atera genuen.

Orain elkarrekin lan egitera tokatzen zaigu eta besteen beharrak eta sentipenak entzutea, guztion artean Oñati bateratzaile eta feministagoa irudikatzeke.

1. TAILERRA	OTSAILAK 3	18:00etan	Bidebarrieta kalea 18
--------------------	-------------------	------------------	------------------------------

Emakume guztion ahotsa eta parte-hartzea ezinbestekoa da.

Beraz, **ANIMATU ZAITEZ** eta gerturatu Bidebarrieta kaleko lokalera datorren astelehenean!!!